

2019
MARTXOA

TUPUST!

Tupust! Kolektiboa



Lehen argitalpen honen gaia «Ni» da eta, ondorioz, antologia hau osatzen duten istorio guztiak niaren inguruan gorpuzten dira; komiki guztiak hitz egiten dute, era batean ala bestean, niari buruz. Komiki hitza erabiltzen dugu bai, baina irakurleek askotariko komikiak aurkituko dituzte *Tupust!* antologian. Batzuk testuaren laguntza dute, beste batzuk soilik irudiak erabiliz eraiki dira. Batzuk bineta, marrazki eta testu asko dituzte orrialde bakoitzeko, beste orrialde batzuk irudi (mutu) bakarrekin betetzen dira. Hamalau komiki, hogeit egile, helburu bakarra: komikigintzatik eta euskaraz, eredu tradicional heteropatriarkalaren deseraikitzea. Egitasmo honek tupust egin ez dezan irakurleari dagokio orain konplize bihurtzea, antologian barrena murgidurik.

KOMIKIA

ISBN: 978-84-17065-66-9

ORRIALDEAK: 120 inguru

FORMATOA: 17 x 24

PREZIOA: 18,00 € inguru

“Euskal Herri mailako komiki-antologia-
edo-dena-delako-zerbait-feminista-queer-
eta-gehitu-nahi-duzuen-guztia da
Tupust!. «Hemen gaude!» esateko. Eta
sorkuntza zurrunean apurtzeko. Eta
kontatu nahi dugun hori kontatzeko.
Gainera, euskaraz. Egile profesionalak
egile amateurrekin nahastuz, oso-oso
garrantzitsua baita hasiberriak direnei
bultzada ematea eta, areago, lehen
aukera bat eskaintzea”.



TUPUST! komiki antologia feminista honen atzean, izen bereko kolektiboa dago. Kolektiboaren helburu nagusienak dira, haien arabera: “komikia eta feminismoa uztartzea; egileen arteko sare bat osatzea; sare hori lan eta proiektu berriak abiarazteko baliatu ahal izatea, izan ditzakegun zalantzak gainontzeko taldekideekin partekatze eta, azken finean, elkarri laguntzeko balio dezakeen komunitate bat sortzea; gure intereseko hitzaldi, erakusketa, egitasmo eta abarrak antolatzea eta sustatzea, tartean, Tupust! komiki feministaren argitalpena bera”. Amets Gurbioa *Negugogorrek* koordinatutako lehen edizio honetan parte hartu duten egileak ondorengoak dira: Irati Eguren Arruti, Paula Estévez, Arrate Rodriguez, Maite Caballero, Danele Sarriugarte & *Josevitsky* Larratxe, Maite Gurrutxaga & Irati Jimenez, Irati F.G. & Regina Salcedo, Nerea Unanua Otxoantesana & Amaia Lekunberri Ansoa, *Txakur Gorria*, Loinaz Lekuona, Maitane Gartziandia, Ainara Azpiazu Aduriz *Axpi*, Eider Eibar & Miren Amuriza eta Leire Urbeltz & Hedoi Etxarte.

Orokorrean, umorea eta satira, eta are zehazkiago binetagitza eta komikigintza maskulinitateek gobernatutako esparruak izan dira. Bai, baita gure Euskal Herri honetan ere. Egoerari erreparatzerakoan, harrigarriki beldurtu gintuen ikusteak zeinen tradizional eta heteronormatibo izan garen eta garen istorioen nahiz gorpuzten sorkuntzan eta zeinen espazio gutxi duten eta izan duten ikuspegi binario horri kontra egin eta haratago joateko nahia izan duten eta gaur egun duten sortzaileak. Euskal Herrian oso iraultzaileak izan gara gai jakin batzuen inguruan, baina oso tradizionalak genero-sexu rolen eraikuntzan, estereotipoen betiketzean. Tupust! horri guztiari buelta emateko asmoz jaio da.

txalaparta
www.txalaparta.eus

